Dantza Garaikidearen Teknikak II

Kurtsoa: 2

Kreditu kop.: 9

Deskribatzaileak:

- Dantza garaikidearen teknika ikastea, dantza garaikidea osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, mugimenduok maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko gorenarekin emanak izateko gisan.
- Printzipio estetikoak eta teknikoak, dantza garaikidearen oinarri diren gorputza eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.

Oharra: Dantza Garaikidea I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

Konpetentziak:

- Dantza garaikidea ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
- Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen tekniken eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
- Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
- Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
- Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
- Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
- Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea.